



# 5. Jarraipen txostena

2030 Agenda Euskadi

2021

2030 


Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country

Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco / Basque Government

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# Sarrera

2018ko apirilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 lehen Agenda onartu zuen, 2030 Agendaren helburuak eta xedeak Gobernu Programaren konpromisoekin lotuz.

2018tik egindako lanari jarraipena emanez, 2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuen, 2021-24 aldirako Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren Legegintzaldiko jarduketa-plana osatuz.

Plan hau euskal XII. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin zuzenean lotuta dago. Ezarritako adierazleen sistemak Gobernu programa eta honen politika sektorialak zein sailtakoak, Garapen Jasangarrirako 17 Helburuei eta horien 169 jomugei dagokienez, bete diren eta horretan lagundu duten adierazten du. Era berean, aukera ematen du ebaluazioa ezartzeko eta etorkizun hurbilera proiektatutako ondorioak ateratzeko.

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren xedea da gizarte-kontratuaren kultura sustatzea, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegi eraldatzaileari eta Ekintzaren Hamarkadari lotuta.

Lehentasunezko lau ardatz zehazten ditu: zabalkundea, koordinazioa, ebaluazioa eta lehentasuna. Bere helburu nagusiak hauek dira: barne-kohesio sozialari laguntzea, bakearen, justiziaren eta iraunkortasunaren aldeko nazioarteko ahalegin onenen parte izatea, politiken koherentzia sustatzea eta 2030 Agenda lehentasun eraldatzaileak bultzatzeko konpromiso gisa onartzea.

Legegintzaldiko programa honek zazpi trakzio-konpromiso eta zazpi proiektu adierazgarri ezartzen ditu ekitatearen, hezkuntzaren, klimaren, energiaren eta biodibertsitatearen, hiri-agendaren, osasun globalaren, ekonomia zirkularraren eta indarkeriaren prebentzioaren eta bakearen babesaren arloetan.

Gobernantzaren eta erakundearen eta gizartearen arteko lankidetzaren ikuspegitik, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragileko Anitzeko Foroa sortu da. Foro horretan, Eusko Jaurlaritzako sailak, hiru foru aldundiak, EUDEL (Euskal udalerrien elkarte), hiriburuetako udalak, euskal unibertsitateak eta lankidetzak publiko-pribatuaren eta gizarte zibil antolatuaren ordezkari diren erakundeak biltzen dira.

Jarraipenerako Borondatezko Txosten hau bosgarrena da. Konpromiso hori 2021ean zehar nola hedatu den jasotzen du. GJH bakoitzari lotutako 2.000 jarduera esanguratsuren eta horien jomugen laburpena da, Eusko Jaurlaritzak bere sailen bidez garatutakoak. Jarduera horiek Gobernu irekiaren Irekia webgunean daude argitaratuta eta eskuragarri.

Giza Garapen Iraunkorra Eusko Jaurlaritzarentzat eta Euskadiko erakunde publiko guztientzat politika publikoen printzipio gidaria da. Bi urteko pandemiaren ondoren, Nazio Batuen erronka globalak are garrantzi handiagoa hartzen du. 2030 Agenda munduarentzako eta pertsonentzako premia eta aukera bat da. Euskadiren konpromisoa da.



# 2021eko mugarri nagusien sintesia

## Pertsonak

Pertsonak izan dira Jaurlearitza kudeaketaren funtsezko gunea, oraindik ere pandemiak markatutako urte honetan. Premiazkoa, beharrezkoa eta garrantzitsua pandemiari emandako erantzunean oinarritu da. Erantzun sanitarioa, baina baita ekonomikoa, soziala eta emozionala ere, oparotasuna sustatzera eta partekatzea bideratua.

Euskal erakundeek, 2021erako 12.442 milioi euroko aurrekontuaz gain, aparteko ahalegin ekonomikoa egin dute COVID-19aren ondorioei aurre egiteko. Ahalegin hori familia, enpresa eta negozio autonomoen eskura jarritako baliabide gehigarrien 5.100 M €-tan ebaluatu da. Horietatik, 2.200 milioi bideratu dira eragina jasan duten pertsonen eta sektoreen laguntzeko zuzeneko dirulaguntzetara, eta beste 2.900 milioi, berriz, zerga-neurrietara eta diruz lagundutako mailegu eta abaletara.

Etikaren eta giza duintasunarekiko konpromisoaren ikuspegi batetik, pertsonen emandako arretak lehentasuna izan du osasun-arretarekin eta beste politika batzuei laguntzarekin batera, bereziki gizarte-politikan eta hezkuntza-eremuan.

• **Gizarte Politiken** eremuan, 179 M €-rekin indartu dira osasun-krisiak zuzenean kaltetutako eta premia handiena duten pertsonentzako laguntzak. Ohiko etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak; lana eta familia bateragarri egiteko laguntza osagarriak; mendeko pertsonen laguntzeko zerbitzuak indartzea; eta laguntza-programa bereziak –esaterako, “Inor atean Utzi Gabe”– hirugarren sektorearen lankidetzarekin abiarazitakoak: horra hor, pandemiak eragindako premia osagarriei aurre egiteko sendotu diren zenbait neurri.

• **Hezkuntzaren** eremuan, 2021ean aparteko ahalegina egin da hezkuntza presentziala bermatzeko. Hezkuntzako irakasleen plantilla sendotu da 1.064 plaza gehiagorekin eta Euskal eskola digitalizatzeko konpromisoa hartu da, Digitalizazio Plan Integral baten bidez, hurrengo hiru urteetan 100 M € inbertitzea aurreikusita. Plan horrek biltzen dituen neurrien artean, garrantzitsuenetakoa, lehen hezkuntzako bosgarren mailatik hasita ordenagailu eramangarri bat jartzea ikasleen eskura eten digitalari ekiteko.

• **Lanbide Heziketari** dagokionez, Plan berri bati emango zaio bide, euskal enpresa-sarea egiten ari den eraldaketa ekonomikoaren prozesuan euskal Lanbide Heziketak dituen erronka berriei eran-

tzuteko. Plan berri honen oinarritzko zutabeak honako hauek izango dira: Emakumea industrian sartzea, trantsizio digitala eta energetikoa, prestakuntza duala eta ikas-ekinezkoa, eta Lanbide Heziketari lotutako enpresa berriak sustatzea.

• **Adineko pertsonen** arreta emateari dagokionez, 62.000 pertsonari arreta ematen dien teleasistentzia programa indartu da. Aurreko esperientziak erakutsi digu erakundearen arteko lankidetzaren behar dela eta elkarrekin lan egin behar dela adinekoen arretarako eredu berritu batean. Ildo horretan, eta foru-aldundiekin lankidetzan, 2022. urterako Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoa argitaratuko da, zaintza-eredu berri baterako trantsizioa bultzatzeko. Eredu berri bat, adinekoek ahalik eta denbora luzeenean bizi-modu independentea izan dezaten etxean eta familia-ingurunean. Egoitza-eredu berri bat, gizatiarragoa eta hurbilagoa, osasun- eta gizarte-arloen integrazio handiagoa ahalbidetuko duena.

• **Berdintasunari** dagokionez, pandemian zehar arreta berezia jarri zaio indarkeria matxista ete-teari. Biktimentzako baliabideak eta zerbitzuak indartu dira, eta etengabeko arretarako telefono-zerbitzua indartu da. Horrez gain, indarkeria matxistaren aurkako gizartearen eta herritarren itunaren proiektua aurkeztu da. Ekimen hori NBE Emakumeak erakundearen “Generation equality” nazioarteko proiektuan sartuta dago. Indargarri eta neurri horiek guztiak Eusko Legebiltzarrean, martxoaren 22an, onartutako Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Legearekin batera indartuko dira.

• **Gazteriaren** arloan, lan handia egin da gazteen Lege-proiektuan, martxoaren 22an onartutakoa. Bere helburu nagusia gazteen emantzipazio-adina aurreratzea da, 2030erako Gazteen Euskal Estrategiaren bidez eta, besteak beste, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen bidez.

Estrategia gazteen emantzipazio-adina murrizten gehien laguntzen duten faktore objektibo eta sub-

jektiboetan oinarrituko da: kalitatezko enplegua eta gazteen etxebizitza, informazioa, orientazioa eta laguntza pertsonalizatuak helduarora igarotzeko ibilbideetan, eta gazteen eta haien familien kultura (balioak eta itxaropenak) emantzipazioari eta baldintzei dagokienez.

Ildo horretan, 2021ean, gazteei etxebizitza bat alokatzeko 275 eurorainoko diru-laguntzak ematen dizkieten programen aurrekontua hobetzen eta indartzen hasi da, Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean eta Enpleguaren Plan Estrategikoan gazteak ardatz dituzten beste ekintza batzuekin batera. Eta emantzipaziorako jarduerak sistematizatu eta ebaluatzeko udalentsako laguntzen lehen deialdi bat jarri da abian.

•**Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren** esparruan, Euskadiko eragile garrantzitsuen artean hitzartutako jarduera baterako esparruak ezarri dira, hiri-lurralde iraunkor, dinamiko eta sozialki kohesionatua ezartzeko helburuetan sakontzeko helburuarekin.

Zehazki, Hiri Agendaren proiektu motorren zorroa zehaztu da. Proiektu horien artean daude, besteak beste, Opengela proiektu enblematika, Berpiztu ekimena eta, zehazkiago, eskualde behartsuak edo Lehenetsuneko Jarduera Eremuak (ZAPS) bultzatzeko Plan Berezia eta Euskadi Next-i lotutako proiektuak.

•Baita hiri-plangintzaren esparruan eta **etxebizitzaren** arloan ere, aipagarria da Jaurilaritzaren Kontseiluak abenduaren 7an onartu zuela 2021-2023 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea, 1.237 M €-ko inbertsioarekin. Planak 4.000 babespeko etxebizitza berri eraikitzea aurreikusuten du, 2.250 VISESA sozietate publikoaren eta gainerako sustatzaile pribatuen bitartez. Gainera, 3.000 gehiago izango dira alokairu babestuko etxebizitzak.

•**Erronka demografikoari** dagokionez -herrialdearen helburuetako bat baita erronka hori-, lan-dokumentu bat onartu da abenduaren 14an, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren funtsezko ildoak diseinatuz. Dokumentu horretan eragile ekonomiko eta sozialek parte hartuko dute, 2022ko lehen lauhilekoan behin betiko onartzeko. Estrategiak 25 ekimen ditu, honakoak besteak beste: seme-alaba bakoitzeko diru-

laguntza bat, familiek jasotzen dituzten pizgarriak berregituratu, bateratu eta areagotuko dituen, progresio-ikuspegi batekin; interesik gabeko mailaguen programa bat, epe luzera itzultzeko aukera emango duena, ekintzaitza, prestakuntza edo gazteen etxebizitza-proiektuetarako; eta enplegua, kontziliazio erantzukidea edo landa-errebabilizazioa eskuratzeko lagunduko duten neurriak.

•**Kulturaren arloan**, 2021ean abian jarri da Euskadiko liburutegi digitala, eta 750.000 erregistro ditu, 34 euskal liburutegiren funtsetakoak. Europeanari, europar liburutegi digitalari eta "Digital Public Library of America" delakoari lotuta egongo da.

Gainera, bultzada berria eman zaio kultura- eta sormen-industriaren estrategiari KSIgune klusterraren bidez, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, eta Basque District of Culture and Creativity BDCC aurkeztu da.

•Azkenik, nabarmentzekoa da **Giza Eskubideen eta Memoriaren** eremua, uztailaren 27an Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Proiektua onartu baitzen. Era berean, irailaren 21ean Uda-berri 2024 estrategia onartu zen, giza eskubideen aldeko estrategia integrala.

•Pertsonak ardatzean sar daitezkeen **proiektu adierazgarri** dagokienez, Ekitatea proiektuak, desberdintasunak murriztera eta bazterkeria prebenitzera bideratuta dagoenak, bere aurrerapean aurkeztu ditu Eragile Anitzeko Foroaren Eraldaketa Sozialaren Lantaldean.

"Hezkuntzaren Auzolana" proiektuak argitalpen batean definitu eta aurkeztu ditu bere lehenetsuneko ardatzak, bai eta aurreikusitako helburuak eta ekintzak ere, guztiak jarraipen-adierazleei lotuak.

Opengela proiektua, Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agendaren esparruan, 2021ean ezartzen jarraitu da, bere eredia hainbat eskualdetan zabalduz eta Euskadi osoko auzo behartsuetan hiri-berroteratzeko jarduketak indartuz.

Bakearen eta giza eskubideen eremuko proiektu adierazgarriari dagokionez, hots, indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzei buruzkoari, lehen aurrerapenak egin dira 2023ko hasieran aurkezteko.

## Oparotasuna

Pertsonetikiko konpromisoarekin eta gizarte-politikekiko lehentasunezko arretarekin batera, Jaurlaritzak susperraldi ekonomikorako eta enplegua berreskuratzeko oinarriak ezarri ditu 2021ean.

Egia esan, ziurgabetasun ekonomikoak daude oraindik mundu osoan. Nazioarteko merkataritzaren murrizketak, eskariaren eta oinarritzko materialen eskaintzaren arteko desorekak, energiaren prezioa, pandemiaren aldaera berriak agertzeak ekar ditzakeen muga ekonomiko eta komertzial berriak, edo interes-tasen eta inflazioaren bilakaerari buruzko ziurgabetasuna oztopoak dira munduan industria eta sektore enblematikoen berreskurapena moteltzen ari direnak, hala nola automobilgintzarena. Hala ere, Euskadik erakutsi du gai dela unerik kritikoenak gainditzeko eta errealitate berri horretara egokitzeko. Hala erakusten dute honako datu hauek: 2021ean BPGaren %5,6ko hazkundera aurreikusteak; industriaren susperraldiak; 14.395 langabe gutxiago izateak; eta Gizarte Segurantzaren kotizatzaile gehiago izateak: 980.022 afiliatu zeuden 2021eko abenduan, 2008ko uztaileko 982.935 kotizatzailearen errekor historikotik oso gertu.

Era berean, hurrengo urterako suspertze ekonomikoaren eta gizarte-politiken oinarriak finkatu dira, 2022ko aurrekontuaren onarpenari esker. Aurrekontu hori Euskadiko historiako handiena da.

Hauek dira Euskadiren suspertze ekonomikoaren oinarrietako batzuk:

- **Berpiztu Plana** legegintzaldiaren hasieran jarri zen abian, eta ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko garrantzia izaten ari da. Garrantutako politikek 53.500 enplegu sustatzea ekarri dute 2020-2021 aldian. Aurreikuspenen arabera, 2022rako egindako inbertsio berria 3.210 M€ ingurukoa izango da, eta sustaturiko enplegua 35.000 pertsonarengana hurbilduko da.

- Gainera, Berpiztuko Kontseilu Errektorean, martxoan, erabaki zen 180 M€-ko aparteko funts bat onartzea **Lehentasunezko Jardun Guneak** (edo Ereku Kaltetuak) biziberritzeko. Aparteko funts horiek dagoeneko gauzatzen ari dira Enkarterrin, Ezkerraldean, Meatzaldean eta Oarsoaldean egiten ari diren 25 jarduera-proiektu zehatzen bidez. Gaur egun, Aiaraldea eskualdeko proiektu estrategiko zehatzak identifikatzeko lanean ari dira.

- Jaurlaritzaren aurrekontu-ahalegin endogenoak islatzen dituen Berpiztu Programarekin batera, itxaropenak **Euskadi Next Programaren** Europako funtsetan kokatuta daude. Jaurlaritzak Eus-

kadi Next programa eguneratzea onartu zuen, 18.000 milioi euro inguruko inbertsioak aurreikusten dituen. 2021ean, Euskadik 692 M€ jaso zituen Espainiako Gobernuaren eskutik, Jaurlaritzako sailen bitartez hainbat programa gauzatze-ko kudeaketa-gomendio gisa.

- Inbertsioaz gain, Euskadiren berpizkunde ekonomikoaren oinarria berrikuntzaren aldeko apustu irmoa da. 2030era arteko **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan** berria onartu dugu, 20.000 milioi euro inguruko inbertsio publiko-privatuarekin. Gure konpromiso publikoa Jaurlaritzaren barruan I+Gra bideratutako aurrekontu-hazkunderetan islatzen da. 2021ean hazkunde hori %10 ingurukoa izan da, eta legealdi osorako konpromisoa %12 handitzea da. Horrela, bikoiztu egingo dugu gure Gobernu Programan urtean hitzematzen dugun %6ko I+Gko inbertsio publikoa. Ahalegin horiei esker, Europar Batasunak berrikuntza handiko eskualde eta bikaintasun-polo gisa kalifikatu du Euskadi.

- Berrikuntza oinarri industrial sendo eta lehiakor baten motorra da. Gobernuak herri-helburu gisa finkatu du industria eta zerbitzu aurreratuak gure BPGaren %40 izatea. Horretarako, ZTBP 2030ekin batera, Industria eta **Enpresa Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa** onartu dugu. 2025eko Euskadiko eraldaketa digitalerako estrategia onartu da. Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa sendotu da. Enpresa txiki eta ertainari laguntzeko plan integral bat jarri dugu martxan, 430 milioi eurokoa. Ekintzailatzeko Erakunde arteko Plana ere onartu da, 250 M€-ko aurrekontuarekin, eta Basque Artificial Intelligence Center BAIC elkarteak abiarazi da. Bertan, Jaurlaritzak parte hartzen du, adimen artifizialari lotutako hogeita bat enpresa eta eragile teknologikorekin.

- **Merkataritzari, ostalaritzari eta turismoari** laguntzeko arloan, COVID-19aren ondorio negatiboak aurre egiteko, Gobernuak, 2020-2021 aldian, sektoreari laguntzeko 114 milioi aparteko baliabide inbertitu ditu, bai zuzeneko laguntzen bidez, bai kontsumoa sustatzearen bidez, ostalaritzarako, turismorako eta merkataritzarako bonu-kanpainen bidez. Gainera, "Euskadi helburu zuen Turismoaren Iraunkortasunerako Lurralde Plana" onartu zen, Next Generation funts europarrekin finantzatua. Euskadik guztira 67 milioi euro jasoko ditu 2023ra arte, Espainiako Gobernuarekin nazioarteko plan hori finantzatzeko hartutako konpromisoaren arabera.

•**Lanaren eta enpleguaren** eremuan, 2030era-ko Enpleguaren Euskal Estrategia onartu da, kalitatera, inklusiora eta berdintasunera bideratutako enplegu-politiketan etapa berri bat ireki nahi duena, eta prestakuntzarako eta aktibaziorako eskubide subjektiboa aitortzeari heltzen diona, enplegua Euskadiren aurrerapenerako eta gizarte-koheziarako baliagarria izan dadin. Azpimarratu behar da, halaber, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak kalitatezko enpleguaren aldeko politika publikoak hitzartzeko duen zeregina sendotzen duela, lantaldeek lortutako akordioak sinatuta. Aipagarria da, halaber, 4.0 industriarako bidezko trantsiziorako euskal itun soziala. Itun horrek prozesu honekin batera joan behar duten ezinbesteko hiru gaiak aipatzen ditu: Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen esparrua, enplegu-nitxo berrietarako prestakuntza-programa eta emakumeen eta gizonen arteko ezin-

besteko berdintasunean aurrera egiteko lehentasun-plana.

•2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren Oparotasuna ardatzeko **proiektu adierazgarrei** dagokienez, Euskal Osasun Zerbitzuak eta Lankidetzaren Euskal Agentziak Osasun Globalaren Proiektuaren lehen jarduera-plan bat definitu dute, Malawiko osasun-zerbitzuekin osasun publikoaren arloko ikaskuntzak eta gaikuntza partekatzeke.

Basque Ecodesign Center proiektua eskema iraunkorrakoak sustatzen ari da euskal industriasektorean, Europako Itun Berdearen eta Basque Green Dealen ildotik. Ekimen horren bidez, eza-gutza sortzen da lehentasunezko esparruetan, eta euskal industriaren balio-katera bultzatzen da ekonomia zirkularrago baterantz.



# Planeta

Eusko Jaurlaritzak Planetarekin duen konpromisoa eremu estrategikoa da. Ingurumenaren Jasangarritasuna, Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa dira Euskaditik planetarekin dugun konpromisoari erantzuten dioten elementuak.

Maiatzean Basque Green Deal ekimena aurkeztu zen, Europako Itun Berdearekin lerrotatuta. Ekimen hau ez da soilik apustu klimatiko bat edo ingurumen-politika bat, industria motore ekonomiko gisa eta teknologia palanka eraldatzaile nagusi gisa hartzen dituen eredu bat baizik.

•**Ekonomia produktibora bideratutako politika publikoak**, hala nola teknologia, berrikuntza, ekin-tzailletza, eraldaketa digitala, garapen industriala, energia, ekonomia zirkularra eta bioekonomia, nekazaritza, arrantza eta elikagaien industria, Basque Green Dealen zehaztutako irizpideen arabera indartzen dira, garapen jasangarri eta inklusiboko eredu berri bat bultzatzeko helburuarekin. Basque Green Deal honekin lotutako **plangintzari eta legeriari** dagokionez, 2021. urtea oso azpimarragarria izan da. 2024ko Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako Plana, 2024ko Gastronomia eta Elikadura Plana (elikagaien xahuketaren aurkako estrategia barne), 2024ko Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Plana eta 2030eko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana onartu dira. Plan horrek 100 milioi euro inguruko inbertsioak jasotzen ditu hondakinen birziklapena, murrizketa eta berrerabilera sustatzeko. Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioari eta Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko legeak onartu dira.

•**Ekonomia zirkularri** dagokionez, martxoan Basque Circular Hub inauguratu zela, Europa Hegoaldean bakarra den ikasketa aurreratuen zentroa. 130 gaztek jaso dute ekonomia zirkularreko prestakuntza eta praktikak. Ildo beretik, ekainean sinatu zen Basque Ecodesign Center 2025erako hirugarren aldia abian jartzeko akordioa. Guztira, 14 euskal enpresa handi sartu dira akordio berri honetan, baita Ihobe, Spri eta Eusko Jaurlaritza bera ere. Azkenik, ETE zirkularra izeneko laguntza-lerro berri bat abiarazi da, euskal enpresa txiki eta ertainetan ekonomia zirkularreko metodoak eta jarduerak aplikatu daitezkeen bultzatzeko, gure inguruko eragileen gaitasunak eta ezagutza aprobetxatuz.

•**Trantsizio energetikoari** dagokionez, otsailean Energy Intelligence Center abian jarri da energia berri-eragileak sustatzearen aldeko apustua eginez lankidetzaren publiko-pribatuaren eskutik. Apustu horren erakusgarri dira, besteak beste, Ekian energia fotovoltaikoa sortzeko proiektua, Ekiola elektrizitatea sortzen duten herritarren koope-

ratibak sustatzeko proiektua eta Europawave marea-energia garatzeko proiektua. Nabarmen-tzekoa da Hidrogenoaren Euskal Korridorearen makro-proiektua abiarazi dela, lankidetzaren publiko-pribatuaren ondorioz. Bertan, 120 erakundek baino gehiagok parte hartzen dute, enpresen, zentro teknologikoen eta tokiko erakundeen artean, eta horietako batzuk European Clean Hydrogen Alliance-koak dira.

•**Ekintza klimatikoaren** eremuan, Euskadik bere gain hartu ditu Glasgoven egin zen COP 26 planetaren aldeko munduko goi-bileraren konpromisoak. Euskadik konpromisoa hartu du berotegi-efektuko gasen emisioak % 45 murrizteko eta 2050ean zero emisio garbi lortzeko. Lehen urratsa euskal industriak eman du. Urrian, euskal industriak zero emisio garbi lortzeko konpromisoa hartu zuen, World Economic Forum garatzen ari den munduko aliantzarekin bat eginda, Euskadiko kluster industrialen zero emisio garbietarako trantsizioa sustatzeko. Basque Net Zero Industrial Super Clusterraren sorreraren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan zero emisio garbietarako bidea azkartzea, energia-horniduraren deskarbonizazioa eta energia-eraginkortasuna sustatuz industria-sektoreetan, eta teknologia eta zerbitzu berritzaile berrien hedapenean oinarritutako merkatu-aukerak sortuz.

•Bi trantsizioak elkarlotuz, 2021ean **Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege Proiektua** egin da. Lege honek berebiziko garrantzia duenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak herritarren parte-hartze prozesu anbiziotsua bultzatu du, eta gizarte-eragileak funtsezkoak izan dira lortu beharreko helburuak elkarrekin sortzeko eta adosteko. Aurreikuspenen arabera, Jaurlaritzak 2022ko bigarren seihilekoan igorriko du lege-proiektua Eusko Legebiltzarrera.

•2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren Planeta-ekologia ardatzeko **proiektu adierazgarriek** aurrera egin dute 2021ean. Alde batetik, Ekiola proiektuak energia-kooperatibak eratu ditu hainbat udalerritan, non bizilagunek berek parte hartzen duten eguzki-energiaren sorreran eta kudeaketan, beren hornidurarako. Bestalde, Klima-Ondarea proiektuak lehen urratsak eman ditu baliabide naturalen erabilera jasangarriari eta zerbitzu ekosistemikoen hobekuntzan sakontzeko.

## Aliantzak

GJHak bultzatzean, aliantza sendo inklusiboak eta integratuak eta lankidetzakoak sustatzea Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko ardatza da, maila guztietan. Honako hauek dira helburuak: konpromiso eta proiektu partekatuetan sakontzea, jardunbide egokiak identifikatzea, lankidetzaren esperientzia berriak sustatzea, eta Garapen Jasangarrirako Helburuen inplikazio- eta aplikazio-konpromisoa hedatzea eta zabaltzea.

•Aliantzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 2021eko uztailaren 6an onartu zuen **Euskadin Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa** sortzeko Dekretua. Organo horrek 2030 Agendaren Gobernantza partekatua bultzatuko du euskal erakunde guztien eta gizarte-eragileen artean. Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta bost lantalde izango ditu: Gobernantza, Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-Klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-Digitala.

Foroaren burua Iñigo Urkullu Renteria lehendakaria da, eta bertako kide dira Eusko Jaurlaritzako sailburu guztiak, hiru foru aldundiak, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte) eta hiriburuetako udalak, hiru euskal unibertsitateetako errektoreak, Euskadiko hirugarren sektoreko erakundee-tako ordezkariak Sareen Sarearen bidez, bai eta lankidetzaren publiko-pribatuaren ordezkariak ere Basque Center for Climate Change (BC3), Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoa edo ACLIMA Basque Environment Cluster direlako bitartez.

2021eko azaroaren 9an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa eratu zen. Lehenengo bileran, "Egitura, lehentasunak eta lehen lan-agenda" dokumentua onartu zen. 2021a amaitu baino lehen, lantaldeen egitura zabaldu zen, eta 2022rako kudeaketa-plana egin zen.

•Gainera, eragile pluralen arteko lankidetzarako **Guneak ekimena** jarri da abian berri ere. Aurreko legegaldian garatutako esperientzia pilotua oinarritzat hartuta, Eraldaketa Sozialerako, Eraldaketa Energetiko-Klimatikorako eta Eraldaketa Ekonomiko-Digitalerako lantaldeetan landuko da orain.

•**Eusko Jaurlaritzak EUDELekin** (Euskadiko Udalen Elkarte) **duen esparru-akordioa** da lankidetzaren-estrategiaren erakusgarri. Euskadiko 2030 Agenda toki-mailan modu koordinatuan hedatzea EUDELekin Euskadiko udalerrien ordezkari gisa Eragile anitzeko Foroan parte hartzearen barruan kokatzen da. Hautatutako 15 proiektu estrategi-


koek, lehentasunen euskal programaren trakzio-konpromisoekin lerrokatuta, iraunkortasunaren lau alderdiak biltzen dituzte: gizarte-garapena, garapen ekonomikoa, ingurumena eta gobernantza.

Honako proiektu hauek nabarmentzen dira, besteak beste: zaintza erantzukidearen tokiko ereduak, ikuspegi feministarekin; bizitegi-bazterketa larriaren dauden pertsonen kontaketa eta diagnostikoa; Zaindu/InguruarEKIN, ekintzailatza jasangarriaren sustapena; Tokiko Gobernantza 2030 Agendara eta GJHetara bideratua: iraunkortasuneko eta tokiko ekintzako politiken ebaluazioa edo Klima eta Energiarako Alkatetzen Ituna.

•Nabarmentzekoak dira, halaber, **EGKrekin** (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) **etengabeko lankidetzaren** gazteak 2030 Agendaren kontzientziazioan, zabalkundean eta inplementazioan inplikatzeko, edo **Jakiunde** Zientzia, Arte eta Letren Akademiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena. Akordio horren helburua da trantsizio sozialen eremuari, oro har, eta erronka demografikoari, bereziki, aplikatutako ezagutza sortzea, datozen urteetan euskal erakundeen jarduna eta lehentasunak bideratu ahal izateko.

•Azkenik, azpimarratu behar da Gobernantzako lantaldean hartutako hiru lan-ildoak, hala nola erakundearen arteko hitzarmena, 2030 Agendaren jarraipena eta ebaluazioa eta Nazioarteko jarduna, maila guztietan integratutako aliantzen eta lankidetzaren politika baten isla dira.

•Azpimarratzekoak dira erronka demografikorako 2030 euskal estrategiari buruzko lan-koadernoak; adierazleen aginte-koadro bakarra eratzea Eustat-ekin batera, 2030 Agendaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko; edo ECOSOC Partnership Forum-en parte hartzea, Eusko Jaurlaritza ez ezik, Regions4 eta NBEko tokiko agintarien talde nagusia ere ordezkatzuz, edo JRCren (Joint Research Centre UE) azterketan parte hartzea, "Towards green transition: the role of Smart Specialisation prioritisation to support transformative innovation" delakoan. Bertan, iraunkortasun-erronkei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei heltzen zaie espezializazio adimendunaren bidez.



**1** POBREZIA  
DESAGERRARAZTEA



**17** HELBURUAK  
LORTZEKO  
ALIANZA



**16** BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIO  
SENDOAK



**15** LEHORREKO  
EKOSISTEMETAKO  
BIZITZA



**14** ITSASPEKO  
BIZITZA



**13** KLIMAREN  
ALDEKO EKINTZA



**12** EKOIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUAK



**11** HIRI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK



**10** DESBERDINTASUNAK  
MURRIZTEA



**9** INDUSTRIA,  
BERRIKUNTZA  
ETA AZPIEGITURA



**8** LAN DUINA ETA  
HAZKUNDE  
EKONOMIKOA






# Edukien laburpena GJHen arabera

---

KO

e





# GIH 1

## Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

### GIH 1 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen **dekretu-proiektua**.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte-hartzea arautzen duen **dekretu-proiektua**.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen **dekretu-proiektua**.
- Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituen **dekretu-proiektua**.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektua**, gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eguneratzeko eta indartzeko, sistema autonomo gisa, osotasun koherente eta integratu batean eratua.

#### Plangintza Tresnak

- Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2021-2024**, boluntariotza indar eraldatzaile gisa bultzatzeko, gizartean hobekuntzak sustatzeko eragin sozial eta politikoa izango duena.
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022**, lurraldeen arteko desorekak saihesteko eta gutxieneko babes-mailak bermatzeko, foru-aldundiekin eta udalekin koordinatuta.
- Etixerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2018-2021**, etxegabetasuna prebenitzeko eta aurkaratzeko politikak indartzeko.
- Gazte Justiziaren V. Plana 2020-2024**, Prebentzioa, sailen arteko lankidetzaren eta 14 eta 18 urte bitarteko arau-hausleentzako esku-hartze judizialen kalitatea sustatzeko.
- Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021**, Erronka berriei erantzuteko eta krisi ekonomikoko aldien eraginari aurre egitea ahalbidetuko duten neurri antiziklikoak sustatzeko, bereziki gizarteratzearen eremuan genero-ikuspegi hartzea kontuan hartuta.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 1 : Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

### HELMUGA

**1.2 Hemendik 2030era, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaistea.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<b>Pandemian martxan jarritako bi programa luzatzea, pertsona ahulenei arreta emateko.</b> Lehenengoa, oinarritzko premiak asetzeko laguntza behar duten pertsonentzat, guraso bakarreko familiei eta familia ugarietarako arreta berezia eskainiz; eta bigarrena, etxerik gabeko pertsonetarako arreta emateko.	<b>77.</b> Zaurgarritasun eta babesgabatasun bereziko egoerari arreta ematea.
<b>2022rako Diru-sarrerak</b> Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria <b>onartzea.</b> (432.450.000.- €)	<b>11.</b> Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garrantzitsua eta hobetzea.




## HELMUGA

**1.3 Nazio mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, hemendik 2030era, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<b>Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak gasaren eta elektrizitatearen prezioen igoerara egokitzea</b> , sistematik kanpo geratzen diren familia kalteberen pobrezia energetikoa arintzeko zenbatekoak bikoiztuz.	<b>77.</b> Zaurgarritasun eta babesgabetasun bereziko egoerei arreta ematea.
<b>Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak, hainbat modutan.</b> a) seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak; b) mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duten langileentzako laguntzak; c) 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak. (37.016.082.- €).	<b>85.</b> Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea.

GIH1 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_1/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_1/ods.html</a>		
<b>Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden pertsonen proportzioa, pobrezia-aren atalase autonomikoa kontuan hartuta:</b> Kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren mediana autonomikoaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa (ELGEn eskala aldatua).	(2014) %18,52	(2020) %17,77 
<b>Gabezia material larria duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa:</b> Bederatzi kontzeptuko zerrenda batetik gutxienez lautan gabezia duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa: 1. Ezin da joan urtean astebetez gutxienez oporretan. 2. Ezin du jan haragi, oilasko edo arrainik, gutxienez bi egunean behin. 3. Ezin du eduki etxebizitza tenperatura egokian. 4. Ez du gaitasunik ezusteko gastuei aurre egiteko. 5. Atzerapenak izan ditu etxebizitzarekin loturiko gastuetan (hipoteka edo alokairua, gas-fakturak, komunitateko gastuak...) azkeneko 12 hilabeteetan. 6. Ezin du eduki ibilgailu bat. 7. Ezin du eduki telefono bat. 8. Ezin du eduki telebista bat. 9. Ezin du eduki garbigailu bat.	(2014) %5,23	(2020) %4,13 
<b>Lan-intentsitate txikiko etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa:</b> Enplegurik gabeko edo enplegu-intentsitate txikiko etxeetan bizi diren 0-59 urteko pertsonen proportzioa (Inkesta egin aurreko urtean, lan egiteko adina zuten etxeeko kideak, beren lan-potentzial osoaren % 20 baino gutxiago izan zutenak).	(2014) %11,96	(2020) %7,63 





# GIH 2

**Gosea amaitzea, elikagai-  
segurtasuna eta elikadura hobea  
lortzea, eta nekazaritza jasangarria  
bultzatzea**

## GIH 2- Edukien laburpena

---

### **Ekimen Legegileak**

·115/2021 dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako prestakuntza-laguntzak (Ikertalent programa).

### **Plangintza Tresnak**

·Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko estrategia ("Osasuntsu"), mende honetako osasun publikoko erronkei aurre egiteko, haurren eta gazteen jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria sustatzeko neurriak hartuz.

·Sasoiko Lanaren Arretarako V. Planaren elaborazioa 2021-2024, sasoiko lanaren inguruan sortutako beharrei erantzungo dieten jarduerak modu koherente eta koordinatuan planifikatzeko.

·Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana 2020-2023, ekoizpen ekologikoa areagotzeko, eraldaketa- eta merkaturatze-katea garatzeko eta tokiko produktu ekologikoaren eskaria indartzeko.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 2: Gosea amaitzea,  
elikagai-segurtasuna  
eta elikadura  
hobea lortzea,  
eta nekazaritza  
jasangarria bultzatzea**

---

## HELMUGA




2.2 Hemendik 2030era, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaile diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Gida praktikoa berri bat egin da, <b>Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko</b> ekintzen barruan. Basque Culinary Centerrek egindako menuen bidez, familien elikagai osasungarrien kontsumoa sustatzen du argitalpen berri honek.	75. Pertsonen zerbitzura dagoen desberdinkeriarik gabeko osasun hurbilagoa.

## HELMUGA

2.4 Hemendik 2030era, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemi eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurrazaren eta lurzoruaren kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<b>Ekoizpen ekologiko ziurtaturako trantsiziorako</b> laguntza-programa. Hemendik aurrera Euskadin ekoiztutako elikagai ekologikoak identifikatzeko <b>EKOLURRA</b> bereizgarriaren aurkezpena.	27. Tokiko elikadura ekologiko, jasangarri eta osasuntsuagoa sustatzea.

GIH 2 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tendentzia
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_2/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_2/ods.html</a>		
<b>Obesitatea, gehiegizko pisua edo pisu eskasa duten 2-17 urteko adingabeen proportzioa:</b> Gaizki elikatutako biztanleen artean sartzen dira gizenak (GMI $\geq$ 30), gainpisua dutenak (25 $\leq$ GMI $<$ 30) edo pisu gutxiegi dutenak (GMI $<$ 18,5), non GMIk gorputz-masaren indizea adierazten duen, eta pisua (kg) altueraren karratuarekin (m) zatituta lortzen den.	(2013) %35,60	(2018) %33,36 
<b>Obesitate-tasa helduen artean:</b> 30 urtetik gorako gorputz-masaren indizea duten 18 urteko edo gehiagoko helduen ehunekoa. Pisua (kg) altueraren (m) karratuarekin zatituz lortzen da GMI.	(2014) %13	(2019) %13,51 
<b>Nekazaritza produktibo eta iraunkorra egiten den nekazaritza-azalaren proportzioa.</b>	(2015) %1,77	(2020) %4,16 





# GIH 3

## Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

### GIH 3 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

·244/2021 Dekretua, abenduaren 14koa, Euskadiko Medikamentuen Gai-  
neko Ikerkuntza Batzorde Etikoa sortzeko eta haren funtzionamendua  
arautzekoa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza  
Sanitarioko Zuzendaritzari atxikitako Sendagaien Ikerketarako Etika Batzor-  
dea arautzeko.

·198/2021 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko  
Miokardioko Infartu Akutuaren Erregistroa sortu eta arautzekoa (Biho-  
tzez erregistroa), Miokardioko infartu akutuaren asistentzia planifikatzeko  
tresna, gertakari koronario akutuei buruzko informazio epidemiologikoa  
ematearekin batera.

#### Plangintza Tresnak

·Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024, pertsona ahulenei  
ematen zaien arreta eta zerbitzuak hobetzeko.

·Euskadiko Plan Onkologiko Integrala 2018-2023, minbiziaren aurrean bizi-  
raupena hobetzeko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik eta pazienteen behar  
globalei erantzungo dien tratu humanizatu batetik, eta diagnostiko-denbo-  
rak murrizteko.

·EAEko Adikzioen VII. Plana, droga-mendetasunen arloko prebentzioa, la-  
guntza, gizarteratzea, ikerketa eta prestakuntza garatzen eta sustatzen  
dituzten jarduerak zabaltzeko.

·Adinekoekiko gobernantzarako euskal estrategia-Nagusu Agenda, adine-  
koek gizartean parte har dezaten eta beren bizi-kalitatea hobetzen lagun  
dezaten. Lehenik, nagusien bakardadean zentratu egin da. Gero, adine-  
koentzako egoitza-zentroen hobekuntzan.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 3: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

### HELMUGA

3.3 Hemendik 2030era, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntza-programa, <b>GIB/hiesa, C hepatitis (HC) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak</b> garatzeko Euskadin. 2021eko deialdia. (300.000 €).	<b>75.</b> Pertsonen zerbitzura dagoen desberdinkeriarik gabeko osasun hurbilagoa.
<b>Hiesaren Aurkako Bizkaiko Herritar Batzordearekin hitzarmena,</b> droga-mendetasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroan kalteak murrizteko programak kudeatzeko.	



## HELMUGA

**3.4 Hemendik 2030era, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Osasun mentalararen arreta indartzea nerabeentzako eguneko bi ospitale psikiatriko berrirekin Bilbon eta Galdakaon.	75. Pertsonen zerbitzura dagoen desberdinkeriarik gabeko osasun hurbilagoa.
Programa pilotu bat abian jarri da, koronabirusaren ondorioz <b>laguntza emozionala</b> behar duten pertsonak detektatzeko.	

## HELMUGA

**3.8 Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Agindutako tratamendu medikoekiko atxikidura errazteko laguntzen programa, pertsona batek arrazoi ekonomikoengatik agindutako medikazioa hartzeari uzten ez diola bermatzeko.	71. Lehen mailako arreta indartzea laguntza-integrazioan aurreratu.
Euskadin bizi diren atzerritarren COVID-19aren aurkako txertaketa, nahiz eta osasun-txartelik ez izan eta egoera administratiboa edozein dela ere.	

GIH 3 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_3/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_3/ods.html</a>			
<b>Bizi-itxaropena jaiotzean:</b> jaioberri batek bizi beharko lukeen batez besteko urte-kopurua da, baldin eta jaiotzean heriotza-adinaren araberrako tasa espezifikoen eraginpean egongo balitz.	(2015) 82,97 urte	(2020) 83,09 urte	↑
<b>Bularreko minbiziaren populazio-baheketak estalitako biztanleriaren proportzioa:</b> Bularreko minbizia goiz detektatzeko programan parte hartzearen ehunekoa xede-biztanlerian: 50-69 urte bitarteko emakumeak.	(2015) %80,80	(2020) %75,80	↓
<b>Kolon eta ondesteko minbiziaren populazio-baheketak estalitako biztanleriaren proportzioa:</b> Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan gizonen eta emakumeen parte-hartzearen ehunekoa xede-populazioan: 50 eta 69 urte bitarteko gizon eta emakumeak.	(2015) %70,40	(2020) %70,90	↑
<b>Trafiko-istripuek eragindako heriotza-tasa 100.000 biztanleko.</b>	(2015) %3,45	(2020) %2,63	↑





# GIH 4

## Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

### GIH 4 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

·241/2021 Dekretua, Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena arautzen duena.

#### Plangintza Tresnak

- Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022, goi-mailako hezkuntza-sistema inklusiboa eraikitzeko, graduatuek kalitate handiko prestakuntza jaso dezaten, eta goi-mailako hezkuntza-erakundeek gure herriaren gizarte-eraldaketan lagun dezaten ziurtatzeko.
- Gaitasun Handiko Ikasleentzako Hezkuntza Arretarako Plana 2019-2022, ikasle horiekiko interbentzioa sistematizatzeko, eta hezkuntza-komunitatea haien errealitateari buruz prestatzeko eta sentsibilizatzeko.
- Hezkuntza Azpiegituren Plana 2019-2023, instalazioak eta azpiegiturak hobetzeko, horrela, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.
- Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetzaren Plana, 2019-2023, sexismoa modu guztietan gainditzeko, genero-berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko lan eginez.
- Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko Plana, ikasle sartu berriak eta atzerritar jatorriko familiak gure hezkuntza-sisteman sartzen laguntzeko, gizartean benetan parte har dezaten sustatuz.
- Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana 2019-2021, Prestakuntza-proposamen egungo munduaren eraldaketa eta modernizazio teknologiko eta soziale-ra egokitzeko.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 4: Guztiontzako  
kalitatezko hezkuntza  
inklusiboa nahiz  
bidezkoa bermatzea  
eta etengabeko  
ikaskuntzarako aukerak  
bultzatzea**

---

## HELMUGA

**4.1. Hemendik 2030era, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-eraketa egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Diru-laguntza zuzenen esleipena <b>COVID-19aren aurkako prebentzio protokoloek</b> eskatutako neurrien aplikaziotik eratorritako gastu gehigarriak finantzatzeko. (36.600.000 €)	<b>53.</b> Bidezko kalitatezko hezkuntza-zerbitzua indartzea, euskal eskola publikoaren funtsezko izaera aitortuz.
Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko <b>ikasketa-beka eta -laguntzen programa</b> .	<b>55.</b> Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eskola inklusiboa, zuzena eta berritzailea lortzea.

## HELMUGA

**4.3 Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Diru-laguntzak ematea, <b>ikasle etorkinentzako kulturartekotasuna sustatzeko</b> eta ikasle hasiberriei hizkuntza indartzeko programak garatzeko (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta).	<b>53.</b> Bidezko kalitatezko hezkuntza-zerbitzua indartzea, euskal eskola publikoaren funtsezko izaera aitortuz.
<b>Diru-laguntzak</b> ematea euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan <b>hizkuntza-eraketa</b> ebaluatzeko proba gainditu duten edo <b>HABE</b> ren euskara-maila edo baliokidea egiaztatu duten ikasleei.	<b>118.</b> Euskararen eza-gutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.

<b>GIH 4 Adierazleak</b>	Oinarri-datua	Azken datua eta ten-dentzia	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_4/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_4/ods.html</a>			
<b>18-24 urte bitarteko biztanleen eskola-uzte goiztiarraren tasa:</b> Gehienez ere bigarren hezkuntzako lehen etapa amaitu eta ikasketarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten biztanleen ehunekoa.	(2015) %10,20	(2019) %8,80	↑
<b>Eskolatzeko-tasa garbia 5 urterekin:</b> Haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta hezkuntza berezian matrikulatutako 5 urteko haurren proportzioa, 5 urteko haur guztiekiko.	(2015) %99,60	(2020) %99,80	↑
<b>Hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten 30-34 urteko pertsonen proportzioa:</b> Unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea (goi-mailako lanbide-heziketa barne) arrakastaz amaitu duten 30-34 urteko pertsonen proportzioa, 30-34 urte bitarteko pertsona guztiekiko.	(2015) %50,34	2019 %48,78	↓





# GIH 5

## Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskatu guztiak ahalduntzea

### GIH 5 - Edukien laburpena

---

#### **Ekimen Legegileak**

·Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Lege-proiektua, Eusko Legebiltzarrean izapidetzen, berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren biktimentzako laguntzak indartzeko.

#### **Plangintza Tresnak**

·Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna bideratzeko.

·Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko jardueraren plana, emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan jarduerak eta neurriak ezartzeko, eta laguntza-sare integrala koordinatzeko.

·Euskadin soldata-arrakala murrizteko plana: Estrategia horren helburua da Euskadi 2030ean soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 5 - Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskatok guztiak ahalduntzea




---




## HELMUGA

### 5.2. Emakume eta neskatu guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean lankidetzat-hitzarmenak sinatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko erakundeen arteko «beldur Barik» kanpaina garatzeko eta kofinantzatzeko.	<b>93.</b> Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea
Emakumearen Euskal Erakundearen (Emakunde) eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) arteko lankidetzat, emakume nerabe-bizirauleri eragindako kalte konpontzeko udalerrietan ekintzak bideratzeko eta ingurune komunitarioan kalte horiek berreskuratzen direla bermatzeko gida bat bultzatzeko.	

GIH 5 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_5/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_5/ods.html</a>			
<b>Genero berdintasunaren indizea:</b> adierazle sintetiko bat da, sei dimentsiotan hierarkikoki egituraturako 31 adierazletik abiatuz lortutakoa. Adierazle horiek 14 azpidimentsiotan banatzen dira, eta gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak laburbiltzen ditu. Bere balioak 1etik (erabateko desberdintasuna) 100era (erabateko berdintasuna) doaz.	(2010) 68,8	(2017) 71,1	
<b>Goi-zuzendaritzako emakumeen proportzioa:</b> Goi-zuzendaritzan lan egiten duten emakumeen proportzioa, goi-zuzendaritzan lan egiten duten pertsonen guztikoarekin alderatuta. Goi-zuzendaritza bezala hurrengoak konstatu hartzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Botere betearazleko eta legegileetako kideak; administrazio publikoetako eta gizarte-intereseko erakundeetako zuzendariak; zuzendari exekutiboak.</li> <li>• Administrazio eta merkataritza sailtako zuzendariak.</li> <li>• Produkzioko eta eragiketen zuzendariak.</li> <li>• Ostatu, jatetxe eta merkataritza enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak.</li> <li>• Beste epigrafe batzuetan sailkatu ez diren bestelako zerbitzu-enpresetako zuzendariak eta kudeatzaileak.</li> </ul>	(2015) %29,45	(2020) %29,70	
<b>Bataz besteko errenta perstonala:</b> 18 urteko edo hortik gorako pertsonen lan-errentak, ekonomi jardueren, transferentzien edo gizarte-prestazioen ondoriozko errentak eta higigarriaren eta higiezinaren kapitalaren errentak gehitzean ateratzen dena da. <a href="https://eu.eustat.eus/berdintasuna/2020/errenta.html">https://eu.eustat.eus/berdintasuna/2020/errenta.html</a>	(2015) Emakumeak: 15.175 Gizonak: 25.152	(2019) Emakumeak: 17.731 Gizonak: 27.885	





# GIH 6

Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

## GIH 6 - Edukien laburpena

---

### **Ekimen Legegileak**

- 229/2021 Dekretua, Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Esparru Erregelamendua onartzekoa. Prestatzen.

### **Plangintza Tresnak**

- Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana, uholdeen aurreko erresilientzia hobetzeko estrategia eta jarduerak zehazten dituena.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 6: Uraren  
erabilgarritasuna eta  
kudeaketa jasangarria  
nahiz guztiontzako  
saneamendua  
bermatzea**

---

## HELMUGA




**6.1. Hemendik 2030era, ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Uraren Euskal Agentziak (URA), beste Ur Partzuergo batzuekin batera, Euskadiko Hondakin Uren Araztegietan (URBEHA) SARS-CoV-2aren jarraipena egiteko proiektua kudeatzen du. Alarma-sistema goiztiarra izatea du helburu, karga birikoaren gorakada nabarmenak detektatzeko eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila erabakiak hartzeko tresna gisa erabili ahal izateko.	<b>133.</b> Uraren eskuragarritasuna eta kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea.

## HELMUGA

**6.3 Hemendik 2030era, uraren kalitatea hobetzea, alegia: kutsadura murriztea; hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea; tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea; eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalteberetarako jarduera-programa onartu da, nekazaritza-jardueratik eratorritako nitratoek eragindako uraren kutsadurari dagokionez.	<b>133.</b> Uraren eskuragarritasuna eta kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea.
Uraren Euskal Agentziak (URA) basoen hidrologia lehengoratzeko ekintzak egin ditu udalerrietan, ibilguak lehengoratzeko eta mantentzeko programaren bidez. Programak azken urteetan 3M €-tik gorako aurrekontua du urtero, eta azken ekitaldian 6M €-ra igo da kopuru hori.	

GIH 6 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tententzia	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_6/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_6/ods.html</a>			
<b>Kontsumorako Uren Sistema Nazionalaren ur-hornidura jasotzen duten pertsonen proportzioa.</b>	(2016) %82,6	(2020) %81,31	
<b>Estres hidrikoaren maila: eskuragarri dauden ur-baliabideetatik erazutzen den ur gezaren proportzioa.</b> Hiri-hornidurako sistemen bidez azken kontsumitzaileei emandako ur-bolumena, metro kubikoetan neurtuta.	(2013) 177.555.343	(2020) 163.675.651	
<b>Ibaietako ur-masen kalitatea:</b> Egoera global ona duten ibaietako ur-masen proportzioa. Egoera orokorra Uraren Esparru Zuzentarauaren arabera kalkulatu da.	(2015) %45,50	(2020) %48	





# GIH 7

## Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

### GIH 7 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen legegileak

·Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-proiektua: 2050erako berotegi-efektuko gasen isurketan neutraltasuna lortzeko eta klimarekiko erresilientzagoa den lurralde baterantz aurrera egiteko esparru juridikoa, klima-aldaketaren arloan erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak eta -organoak sortuz.

#### Plangintza tresnak

- 2021-2024 Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako plan estrategikoa: 2024rako jomuga duen plana, berotegi-efektuko gasen isurketa % 30 murrizteko; energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumoaren % 20 izan dadin lortzeko; eta klima-aldaketaren aurrean euskal lurraldearen erresilientzia ziurtatzeko.
- Hidrogenoaren Euskal Estrategia, hidrogeno berriztagarria ekoizteko, biltegitratzeko, garraiatzeko eta tokiko merkatuan banatzeko baldintzak ezartzea du helburu, eta, aldi berean, nazioarteko merkatuan garrantzia duen zentro logistikoa bat ezartzeko oinarri izatea.
- Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Plana 2025, 2025ean energia-kontsumoa % 25eraino murrizteko, euskal sektore publikoaren guztizko energia-kontsumoaren erreferentzia-oinarriaren gainean.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030, Energia-sistema gero eta iraunkorragoa lortzeko, lehiakortasunari, horniduraren segurtasunari eta karbono baxuari dagokienez.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 7: Energia  
eskuragarria, fidagarria,  
jasangarria eta  
moderno bermatzea  
guztiontzat**

---




## HELMUGA

### 7.2 Hemendik 2030era, nabarmenki areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Eusko Jaurlaritzak eta Mondragon Korporazioak Ekiola Energia Sustapenak sortu dutela jakinarazi dute, energia jasangarria sortzeko herri-tarren kooperatibak sustatzeko sozietatea.	<b>126.</b> Iturri berriztagarrien erabilera areagotzea energiaren azken kontsumoan.
Euskadiko Tokiko Administrazio Publikoaren sektorean energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrien erabileran inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien programa – Gauzatu Energia.	

GIH 7 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tendentzia
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_7/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_7/ods.html</a>		
<b>Energia berriztagarrien proportzioa energia elektrikoaren ekoizpenean.</b>	(2015) %18,08	(2020) %17,09
<b>Energia elektrikoaren kontsumoa BPGren unitateko:</b> BPGren hazkundeak energia-kontsumoarekiko duen menpekotasuna neurtzen du. Zenbat eta intentsitate energetiko handiagoa, orduan eta ingurumen-kutsadura handiagoa eta baliabideen suntsitzea. Milioi euroko petrolio tona baliokideetan neurtuta.	(2015) 20,75	(2020) 17,96







# GIH 8

## Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea

### GIH 8 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko kidegoei eta eskalei buruzkoa, Enplegatu Publikoaren Estatutuko taldeetara eta sortutako titulazio berrietara egokitzeko, bai eta lanpostu jakin batzuen lanbide-profilak eguneratzeko ere.
- Euskal enplegu publikoaren Lege-Proiektua, Euskadiko enplegu publikoaren araubide juridikoa antolatzeko eta definitzeko, eta euskal administrazio publikoak arrazionalizatzeko eta modernizatzeko prozesua gauzatzeko.

#### Plangintza Tresnak

- Enpleguaren Euskal Estrategia 2030: Kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari lagunduko diona.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2021-2026, laneko osasuna sustatzeko eta prebenitzeko, batez ere generoagatik, adinagatik, jatorriagatik eta dibertsitate funtzionalagatik edo beste batzuegatik osasun-desberdintasunik handienak jasan ditzaketen pertsonen kasuan.
- Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko "Berpiztu" Programa 2020-2024: Euskadiko erakundeek erantzuna da, COVID-19aren osasun-pandemiak sortutako ekonomia- eta enplegu-krisia gaitzeko, galdutako enplegua berreskuratze eta langabezia-tasa % 10etik beherakoa izateko 2024ra bitartean finkatutako denbora-tartean.
- Ekintzaitzaren Erakundearteko Plana 2024: Ekintzaitza mota guztiak sustatzeko, susperraldi ekonomikoaren sasoi berri baten eragile gisa.
- Lanbide Hobetzen Plana. Batetik eraginkortasunean hobetzeko: bai langileen prestakuntza eta orientazio premietan, zein enpresen enplegu-premietan. Bestetik, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentak eta gizarteratzeko eta laneratzeko eskubi-dea ziurtatzeko.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 8: Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea

### HELMUGA

8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa eman-go dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baina finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
“Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta mikroenpresak”, EU-NextGeneration EUk finantzatutako PRRren esparruan. Eraldaketa ekologiko edo digitalean inbertitzen duten mikroenpresa eta langile autonomoetan enpleguari eustea sustatzeko programa. 3.367 ekimen finantzatu nahi dira.	5. Mikro ekintzailtzaizaren sustapena eta autonomo eta mikro ETEentzako babesa.

### HELMUGA

8.4. Hemendik 2030era, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarrirer buruzko Programen Hamar Urterako Esparruarekin bat etorritik, garatutako herrialdeetatik hasita.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
EAEko ETEentzako berriarazko laguntza plana, ekonomia zirkularreko metodoak eta jarduerak aplikatu daitezkeen bultzatzeko, gure inguruko eragileen gaitasunak eta ezagutza baliatuz.	131. Enplegu berdea eta berrikuntza sustatzea ekonomia zirkularren eremuan.
Basque Green Deal Gunea sortzea, Europako itun berdearen espiritua zabaltzeko Euskadi zeharkatuko duen foroa.	

## HELMUGA:




**8.5 Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
250 milioi euroko Inbertsioen Aparteko Programa onartzea. Horietatik 170 2021ean hasiko dira gauzatzen. Kopuru hori 2021eko Euskal Aurrekontuetan jasotako 1.000 milioi euro baino gehiagori gehitzen zaio.	<b>1.</b> Euskadiren berreraikitze sozial eta ekonomikora zuzendutako Susperaldi Ekonomikorako eta Enplegurako Sail arteko Esparru-programa.
Euskal Enplegu Zerbitzuaren (Lanbide) diru-laguntzen programa, lan maskulinizatuko emakume langabetuak prestatzeko eta kontratatze-proiektuetarako (2.000.000 €).	<b>7.</b> Zailtasun handiagoak dituzten langabeen laneratzea sustatzea eta enpleguarekiko sarbidea hobetzea..

## HELMUGA

**8.9 Hemendik 2030era, turismo jasangarria sustatzera bideratutako politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
2021eko Euskal Turismoaren Iraunkortasunerako Laguntza Programa, ia 18 milioi eurokoa; Euskal Turismoaren Iraunkortasun Planaren barne dagoena. Laguntza horietaz gain, turismoaren sektorea sustatzeko eta dinamizatzeko beste ardatz bat gehituko zaio, 3 milioi euroz zuzkituta.	<b>40.</b> Turismo Jasangarri-rako Euskal Estrategia berria onestea.
COVID-19 laguntza-programa turismo-sektorearentzat (15.000.000 euro).	

GIH 8 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta ten-dentzia	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_8/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_8/ods.html</a>			
<b>Langabezia-tasa:</b> Langabeen proportzioa, ekonomikoki aktiboak diren pertsonekin alderatuta.	(2015) %15,69	(2020) %10,64	
<b>Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte).</b>	(2015) %28,42	(2020) %22,07	
<b>Turismoak sortutako BPG, BPG osoarekin alderatuta.</b>	(2015) %6,30	(2020) %6,40	





# GIH 9

## Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

### GIH 9 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

·21/2021 Dekretua, zeinaren bidez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen den.

#### Plangintza tresnak

- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa**: 2024rako Euskadiren esportazio-joera BPGren herena izateko, atzerrian ezarpenak dituzten euskal enpresen joera handitzeko eta nazioartekotzea bultzatzeko zerbitzuak % 10 handitzeko helburuarekin.
- Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa**, 2024rako helburu hauekin: produktibitate materiala % 30 handitzea, material zirkularraren erabilera-tasa % 10 handitzea, eta BPGren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 10 murriztea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP 2030**: Epe luzeko apustua, zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko, Euskadi digital, berde eta inklusiborako trantsizioa bizkortuko duten palanka gisa. Lau zutabetan oinarritzen da: bikaintasun zientifiko, lidergo teknologiko-industrial, berrikuntza irekia eta talentua.
- Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen Plana 2021-2024**, Ekosistema jasangarriagoak eta eraginkorragoak indartzeko eta Euskadiko enpresen eta gizartearen hazkunde teknologikoari aktiboki laguntzeko.
- Euskadi 2025erako Eraldaketa Digitalerako Estrategia**. Eraldaketa digitaleko eredu berri bat definitzen du, Euskal Administrazio Publikoaren eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremana ulertzeko eta gauzatzeko modu desberdin bat dakarrena, erronka globalei batera aurre egin ahal izateko.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 9: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

## HELMUGA

**9.2 Industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea eta, hemendik 2030era, nabarmen areagotzea industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena, bat etorri egoera nazionalekin, eta ekarpen hori bikoiztea aurrerapen txikieneko herrialdeetan.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
180 milioi eurotik gorako plan berezi bat abian jarri da, eskualde behartsuak edo lehentasunezko arreta-guneak bultzatzeko.	17. Lehentasunezko jarduketa-guneak eta zailtasunak dituzten enpresak.
"Indartu" programa: Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten zenbait zona eta udalerrietan inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzat, lehiakortasuna hobetzea eta garapen ekonomikoa ekarriko duena.	



## HELMUGA

**9.3 Industria txikiak eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arrazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria edo enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
“Gauzatu Industria” programa, oinarri teknologikoko edota berritzaileen ETEen sorrera eta garapena bultzatzeko, laguntza itzulgarrien bidez (28.000.000 €).	15. Enpresa txiki eta ertainak babestea.
Bikoiztu egiten da enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzen programaren (4 M) zuzkidura, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.	
Remove 4.0 programa, makineria edota ekipamendu aurreratua (Hardware eta Software) erosten laguntzeko, 4.0 Industriako proiektuak inplementatzeko, ETE industrialetan Fabrikazio Aurreratuaren eremuan teknologiak aplikatzeko.	


## HELMUGA

**9.5 Ikerketa zientifikoa areagotzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen ahalmen teknologikoa hobetzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, berrikuntza sustatu behar da eta nabarmen areagotu behar da, hemendik 2030era, ikerketan eta garapenean lan egiten duten pertsonen kopurua (milioi bat biztanleko), baita sektore publikoek eta pribatuek ikerketan eta garapenean egiten duten gastua ere.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
BAIC sortzea. Adimen Artifizialeko Euskal Zentroa.	14. Euskadin erroto-tako 4.0 Industria eta adimen artifizialaren garapena.
«Basque Industry 4.0 .» programa, Teknologiaren Transferentzia lantzen duten ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak laguntzea helburu duena.	
Abian jarri da HARSHLAB, offshore industriarako saiakuntza laborategi flotatzaile handiena, I+Gn 6 urtez lankidetzan aritu ondoren.	19. Espezializazio adimenduna eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria 2030eko helmugarekin.

GIH 9 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tendentzia
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_9/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_9/ods.html</a>		
<b>Manufaktura-sektorearen balio erantsia, BPGrekiko.</b>	(2015) %18,83	(2019) %17,13
<b>Ikerketa eta garapeneko gastuak BPGrekiko:</b> Ikerketako eta garapeneko gastuak barne-produktu gordinarekiko duen proportzioa.	(2015) %1,86	(2020) %2,08
<b>Lanaldi osoan diharduten ikertzaileen kopurua milioi bat biztanleko.</b>	(2015) 5.564,48	(2020) 6.194,39







# GIH 10

## Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

### GIH 10 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

- Aniztasuneko berdintasunari eta sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurkako borrokari buruzko Lege Integralaren proiektua.
- Kultu lekuen, Zentroen eta Erljio Aniztasunaren Lege-proiektua, gizartearen bizikidetzara eta erlijio-aniztasuna babesteko eta pertsonen erlijio-askatasunerako oinarritzko eskubidea gauzatzen dela bermatzeko.
- Haurren eta nerabeen eskubideen Lege-proiektua, haurrak eta nerabeak babesteko eremua arautzeko, prebentzioan eta babesgabetasunarekiko urrakortasun-egoeretan arretoa berezia jarrita.

#### Plangintza Tresnak

- Migraziorako Euskal Itun Soziala, helburu etiko hauek erdiesteko: migratzaileen premien aurrean erantzun solidarioa eta arduratsua indartzen laguntzea; eta aitzaki xenofoboko populismoen asmoak antzu bihurtuko dituen zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea.
- 2030erako Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren "lan-dokumentua". Estrategiak 25 ekimen ditu, horietako lau proposamen berriak dira, gainerakoek abian dauden jarduera-ildoak indartzen edo sakontzen dituzte. Seme-alaba bakoitzeko laguntza bat aurreikusten da, familiek jasotzen dituzten estimuluak birkonfiguratu, bateratu eta goratuko dituen, progresio-perspektiba batekin, 2023tik 2030era; interesik gabeko maileguen programa bat jasotzen du, eta epe luzera itzultzeko aukera ematen du, ekintzailtzako, prestakuntzako edo gazteentzako etxebizitzako proiektuetarako; 0-2 urteko haur-eskolen doakotasuna barne hartzen du, kontziliazioa errazteko eta indartzeko baldintzak sortzeko neurri gisa; gazteek etxebizitza eskuratzea, gazteen enplegua, kontziliazio erantzukidea edo landa-eremuen balioa handitzea bultzatzen duten neurriak gehitzen dira.
- Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, Erronka berriei erantzuteko eta krisi ekonomikoko aldien eraginari aurre egitea ahalbidetuko duten neurri antiziklikoak sustatzeko, bereziki gizarteratzearen eremuan genero-ikuspegia hartzea kontuan hartuta.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 10: Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

### HELMUGA

**10.2 Hemendik 2030era, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<p>Proiektu pilotua, ALTXOR 7.0 zerbitzuaren hiru bulegoak martxan jartzeko. Bulego horiek lurralde historiko bakoitzean kokatuko dira. Altxor 7.0 adinekoen bizitza-proiektuei laguntzeko zerbitzu pilotu bat da.</p>	<p><b>83.</b> Laguntzaren kalitatea bermatzea eta arreta indartzea adinekoen etxeetan zein horien ingurune hurbilean.</p>
<p>Barnahus bat kudeatzeko programa pilotua abian jartzea. Arreta integraleko zentro eredua, non haurrei edo nerabeei sexu-abusuak egiten zaizkien kasu batean interbenitzen duten sail guztiak koordinatzen diren elkarrekin biktimari arreta emateko.</p>	<p><b>86.</b> Haurren babeserako, prebentziorako eta promoziorako plan integrala.</p>

## HELMUGA

### 10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Gazteei alokatzen laguntzeko programak eta arrazoizko prezioan alokatzen diren etxebizitza pribatuak eskuratzeko baldintzak hobetzea. Gaztelagun eta ASAPen baldintzak malgutu egin dira, etxebizitza gehiagok eta gazte gehiagok jaso ahal izan ditzaten bi laguntzak, bi programen xede diren etxebizitzaren hileko gehieneko errentak handituz.	<b>38.</b> Berariazko etxebizitzarako sarbide-ekin-tzak gazteentzat.
Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzako diru-laguntzen programa, honako hauek bultzatzeko: diagnostiko-azterlanak egitea, gazteen emantzipazio-planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta gazteen emantzipazio-prozesua bultzatzea helburu duten tokiko beste ekimen batzuk egitea edo sistematizatzea eta ebaluatzea (1.150.000 €).	<b>92.</b> Gazteen emantzipazio-erako estrategia.
Gazteak Emantzipatzeko Euskal Sarea eta GAZ (Gazteriaren proiektuak Abian jartzeko Zerbitzua), Ameslariak (kaptazio, atxikipen, itzulera eta konexio programa) eta Trapezistak programa pilotuak abian jartzea, familia laguntzarako sarerik ez duten gazteak helduarora igarotzen laguntzeko.	

## HELMUGA

### 10.6 Garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkari eta esku-hartze handiagoa bermatzea nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeek hartutako erabakietan, erakunde horien eraginkortasuna, fidagarritasuna, kontuak eta legitimotasuna hobetzeko.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Garapenerako, laguntza teknologikorako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzarako lankidetzako proiektuetarako laguntza-programa. (32.000.000 €)	<b>107.</b> Kalitatean, eragintzan eta berrikuntzan sakontzea garapenerako lankidetzako politikan.

GIH 10 Aderazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_10/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_10/ods.html</a>		
<b>Gini Indizea:</b> lurralde desberdinetako diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna alderatzeko erabiltzen da. Bere balioa 0 eta 100 artekoa da: 100etik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa izango da diru-sarreraren kontzentrazioa, eta 0tik zenbat eta gertuago egon, orduan eta orekatuagoa da aberastasunaren banaketa populazioaren artean.	(2014) <b>27,10</b>	(2020) <b>28,20</b> ↓
<b>Diru-sarreraren medianaren % 50etik behera bizi diren pertsonen proportzioa, mediana autonomikoa kontuan hartuta:</b> Kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren mediana autonomikoaren % 50etik beherako diru-sarrekin bizi diren pertsonen proportzioa (ELGEn eskala aldatua). Etxe bateko kontsumo-unitateen kopurua kalkulatzeko, ELGEn eskala aldatua erabiltzen da, zeinak 1eko pisua ematen baitio 14 urteko edo gehiagoko lehen pertsonari, 0,5eko pisua 14 urteko edo gehiagoko gainerako pertsonari, eta 0,3koa, azkenik, 14 urtetik beherakoei.	(2014) <b>%11,03</b>	(2020) <b>%11,10</b> ↓





# GIH 11

## Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

### GIH 11 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

- 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzetara eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa, jenderik gabeko etxebizitza arautzeko eta bizitegi-erabilerarako benetan okupatzera bideratutako neurriak hartzeko, etxebizitzaren funtzio soziala betetzen dela bermatuz.
- 228/2021 Dekretua, urriaren 26koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilua arautzen duena, kultura-ondarearen kudeaketa integrala bermatzeko eta ondare hori transmititzeko, sustatzeko eta balioesteko konpromisoa sendotzeko.
- Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua. Mugikortasunari buruzko marko-juridiko integratua, garraio-eredu eraginkorra sustatzen duena, egungo sistemarekiko ingurumen- eta gizarte-inpaktuak murrizteko.
- Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen Lege-proiektua, zerbitzu publikoen informazioaren kudeaketa hobetzeko, gardentasun-printzipioa garatzeko, dokumentu-ondarea babesteko eta herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea aitortu eta gauzatzeko.

#### Plangintza tresnak

- Euskadiko Bide Segurtasuneko, Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plana, Trafiko-istripuek eragindako istripu-tasa murrizteko Zero Biktima ikuspegiarekin, hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua murrizteko helburu orokorrak betez.
- Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda, hiri eta herri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzeko, inor atzean gera ez dadin, eta 2050era arteko denbora-perspektiban.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen III. Plan Orokorra, zerbitzua ematen den zona bakoitzaren baldintzatzaileetara egokitzeko bide-sarea, ingurumenaren eta hirigintzaren gaineko inpaktuak minimizatuta.
- Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea 2021-2023, 71.200 etxebizitza birgaitzeko laguntzak ematea aurreikusten duena, energia-eraginkortasuna, bizigarritasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta eraikinen digitalizazioa hobetzeko.
- Euskararen Agenda Estrategikoa, euskararen transmisioa bermatzeko. Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera handitzea. Euskararen erabilera handitzea ingurune digitalean. Komunikabideetan euskararen erabilera areagotzea.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 11: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

## HELMUGA

**11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<p>Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, ADIFekin eta Vitoria-Gasteizko Abiadura Handiko Sozietatearekin batera protokolo bat sinatzea, abiadura handiko trena hirira irits dadin eta trenbidea bertan integra dadin bultzatzeko.</p>	<p><b>34.</b> Trenbide-inbertsioak lehenestea.</p>
<p>Salgaien eta bidaiariaren errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2021 ean. Laguntzen helburua flotaren eta segurtasunaren kudeaketan eragin-kortasuna lortzea da, garraio iraunkorrerantz aurrera egiteko eta sektorea modernizatzeko.</p>	<p><b>32.</b> Mugikortasun jasangarria.</p>



## HELMUGA

### 11.3 Hemendik 2030era, hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kogaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan.


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
2021etik 2023ra bitartean aparteko inbertsioa Ezkerraldea-Meatzaldeko lau auzotan hiri-berroneratzeko programetarako, eskualde behartsuetako edo lehentasunezko jardun-eremuetako proiektu bultzatzaileen esparruan.	<b>39.</b> Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitza -berrikuntza sustatzea, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntza jasangarria hobetuz.
Lankidetzeta-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren, Ekonomia-ren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren eta Repsol Fundazioaren artekoa, hiri-berroneratze integralari buruzko lan-foro bat sortzeko.	

## HELMUGA

### 11.4. Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko diru-laguntzen programa, OAI-PMH protokoloa ezarrita duten biltegien bidez. Protokolo horrek gaur egun dauden digitalizazio-proiektu nagusien arteko elkarrengarritasun-estandarrak garatu eta sustatzen ditu, eta edukiak Interneten eraginkortasunez zabaltzea errazten du.	<b>114.</b> Euskadiko ondare kulturala babestea eta hori nabarmentzea bultzatzea.
Lanhitz laguntza-programa, EAEko sektore pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko. Esleipena 2.000.000 €.	<b>118.</b> Euskararen eza-gutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea gizarte- eta kultura-eremuetan, eremu ekonomikoetan, digitaletan eta sektore publikoan.

GIH 11 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_11/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_11/ods.html</a>			
<b>Etxebizitzan gabezia jakin batzuek dituztenen pertsonen proportzioa:</b> Etxebizitzetan itoginak, hormetako, zorueta, sabaietako edo zimendueta-ko hezetasunak edo zorueta, leihoeta edo ateeta usteltasun-arazoak dituzten pertsonen proportzioa.	(2014) %11,80	(2020) %10,46	↑
<b>PM10 partikula finen urteko batez besteko maila, populazioaren arabera haztatua:</b> Mikrogramo/metro kubiko-tan adierazita.	(2015) 18,15	(2020) 14,90	↑
<b>Lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan joan-etorriak biztanleko:</b> Urteko batez besteko joan-etorriak EAEn barruan egiten diren lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan (hiri-autobusa, hiriarteko autobusa, hiri-trena eta hiriarteko trena) biztanle bakoitzeko .	(2015) 117,51	(2020) 74,29	↓





# GIH 12

## Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

### ODS 12 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

·Dekretua, Euskadiko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten erregistroari buruzkoa, Kontsumitzaileen ordezkariak, entzunaldi eta kontsultarako errolda bat arautzeko.

#### Planifikazio Tresnak

·**Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa**, 2024rako helburu hauekin: produktibitate materiala % 30 handitzea, material zirkularraren erabilera-tasa % 10 handitzea, eta BPGren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 10 murriztea.

·**Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030**, Euskal sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potentziala erabiltzeko, merkatuarekin koordinatuta, garapen sozioekonomiko iraunkorra lortzeko.

·**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP 2030**: zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko, Euskadi digital, berde eta inklusiborako trantsizioa bizkortuko duten palanka gisa.

·**Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2030**, 2030erako helburu hauekin: guztizko hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea; hiri-hondakinen gaikako bilketa % 85era arte handitzea; hondakin ez-arriskutsuen % 85 berrirabiltzea, bigarren mailako material bihurtuz; eta zabortegetako deuseztapena % 15 baino gutxiagora murriztea.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 12: Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

## HELMUGA

**12.2 Hemendik 2030era, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<p>Ekodiseinu, birmanufaktura eta metal, plastiko eta mineralen ekonomia zirkularreko 26 proiektu ekoberritzaile bultzatzea.</p>	<p><b>131.</b> Enplegu berdea eta berrikuntza sustatzea ekonomia zirkularren eremuan.</p>
<p>Hamalau euskal enpresarekin eta Ihobe eta SPRI sozietate publikoekin batera, ekodiseinuan eta ekonomia zirkularrean lankidetzako publiko-pribatuko aliantza sinatu da, Basque Ecodesign Center izenekoa.</p>	
<p>Basque Circular Hub inauguratu da; egoitza Bilbon du eta Euskadiko ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuen zentroa da. Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren, Deustuko Unibertsitatearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU), Mondragon Unibertsitatearen, Euskadiko LHko Ikerketa Aplikatuko Zentroaren (Tknika) eta Novia Salcedo Fundazioaren arteko lankidetzako publiko-pribatuaren emaitza da. 2021ean, 130 gaztek ekonomia zirkularreko prestakuntza eta praktikak jaso dituzte.</p>	

## HELMUGA



**12.3 Hemendik 2030era, munduan, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
JANARIA EZ DA BOTATZEN kanpaina, Euskadiko biztanlegoa elikagaien xahuketaz sentsibilizatzeko.	<b>27.</b> Tokiko elikadura ekologiko, jasangarri eta osasuntsuagoa sustatzea.

## HELMUGA

**12.5 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bitartez.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Hondakinen araudia ezartzen laguntzeko eta Euskadin ekonomia zirkularra sustatzeko diru-laguntzen programa.	<b>132.</b> Hondakinak murriztea eta horien birziklapena eta balorizazioa areagotzea.
Eusko Jaurlaritzak, ECOVIDRIO eta ECOEMBESK EKOADRILA aurkeztu dute, hondakinei "bigarren bizitza" emateko eta Euskadiri birziklatzean emandako erantzuna eskertzeko kanpaina.	

GIH 12 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_12/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_12/ods.html</a>			
<b>Birziklatutako hiri-hondakinen proportzioa, sortutako eta tratatutako hiri-hondakin guztiekiko:</b> Birziklatutako udal-hondakinen proportzioa, etxeetan eta zerbitzuen sektorean (dendak, bulegoak eta erakunde publiko edo pribatuak) sortutako eta tratatutako udal-hondakinen guztizkoarekin alderatuta, haien kudeaketa toki-erakundeena izanik.	(2015) %36,44	(2018) %41,46	
<b>Materialen kontsumoa biztanle bakoitzeko:</b> Ekonomian zuzenean erabilitako materialaren guztizko kopurua (CDM) per capita, tona/biztanleko-tan adierazita.	(2015) 10,95	(2018) 13,04	





# GIH 13

## Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

### GIH 13 - Edukien laburpena

---

#### Ekimen Legegileak

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, Ingurumena babestu, zaindu eta hobetzeko marko juridikoa ezartzeko.
- Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-proiektua: 2050erako berotegi-efektuko gasen isurketan neutraltasuna lortzeko eta klimarekiko erresilienteagoa den lurralde baterantz aurrera egiteko esparru juridikoa, klima-aldaketaren arloan erakundeen arteko koordinazio-mekanismoa eta -organoak sortuz.

#### Plangintza Tresnak

- Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako plan estrategikoa 2024, nazioarteko helburuak betetzeko eta klima-aldaketaren abiadura murrizteko, eta horren ondorioei erantzuteko gaitasuna handitzeko.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP 2030, Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko, Euskadi digital, berde eta inklusiborako trantsizioa bizkortuko duten palanka gisa.
- 2030erako Euskadiko Ingurumenaren V. Esparru Programaren elaborazioa, munduko joera nagusiekin bat etorritz, euskal gizarte oparoa, moderno, aurreratua eta iraunkorra garatzeko ingurumen-politika hedatzeko.
- Ingurumen Ikuskapenerako eta Kotrolerako Plana 2019/2026, EAEko ingurumenaren babes-maila handia lortzeko, ingurumen-araudia eta ingurumen-baimen eta -prozeduretan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatuz.
- Klima-aldaketaren aurkako estrategia Klima 2050, 2030. urterako berotegi-efektuko gasen isuriak 2005. urtearekin alderatuta % 40 murrizteko, eta 2050. urterako % 80 murrizteko.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 13: Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko



---





## HELMUGA

### 13.2 Klima-aldaketari lotutako neurriak sartzea politika, estrategia eta plan nazionaletan.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
<p>“Urban Klima 2050: eragile anitzeko lankidetzak Euskadin egokitzapena finantzatzeko” nazioarteko jardunaldia antolatu eta egin da. Jardunaldi horrek Europako LIFE Urban Klima 2050 proiektuaren aurrerapen nagusiak ezagutaraziko ditu. Proiektu hori Euskadiko klima-ekintzako ekimenik handiena izango da 2025era arte.</p>	<p><b>129.</b> Irmoki egitea aurrera karbonoan baxua den ekonomia baterantz, enplegua sortzeko eta garapen industrial zein teknologikorako abagune gisa.</p>
<p>Hidrogenoaren Euskal Korridorea (BH2C) elkarteak sortu da. Euskadin hidrogenoaren ekosistema bat sortzea du helburu, lankidetzak publiko-privatuko estrategia batekin, energiaren, mugikortasunaren eta industriaren sektoreen deskarbonizazioan aurrera egitea ahalbidetuko duena. Eusko Jaurlaritza, EEEren bidez, kide sortzailea da eta elkartearen lehendakariordea da.</p>	

GIH 13 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<p><a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_13/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_13/ods.html</a></p>			
<p><b>Berotegi-efektuko gasen isurketa, 2005. urtearekin alderatuta:</b> Berotegi-efektuko gasen isurketen aldakuntza-tasa, 2005. urtearekin alderatuta (Kiotoko protokoloa).</p>	<p>(2015) %-23,84</p>	<p>(2019) %-26,90</p>	
<p><b>Airearen kalitatearen indizea:</b> Airearen kalitatea ona edo oso ona den egunen ehunekoa, SO<sub>2</sub>, NO<sub>x</sub>, CO, PM<sub>10</sub> eta O<sub>3</sub> kutsatzaileen kontzentrazioei erreparatuta</p>	<p>(2015) %83,39</p>	<p>(2020) %88,63</p>	





# GIH 14

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

## GIH 14 - Edukien laburpena

---

### Ekimen Legegileak

·143/2021 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantza-erakustaldiei eta marinel- edo arrantza-turismoari buruzkoa: Turismo-arrantza, arrantza-erakustaldiak eta arrantza- edo arrantza-turismoa arautzen ditu, itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin lotutako jarduerak, arrantza-sektorea osatzen duten pertsonen errentak hobetzeko edo osatzeko.

### Planifikazio Tresnak

·Itsas Arrantzarako Europako Funtsaren (FEMP 2021-2027) Euskadiko programa eragilea, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza- eta akuikultura-sektoreari laguntzeko eta itsas ingurunean duen eragina mugatzeko.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 14: Ozeanoak, itsasoak  
eta itsas baliabideak  
mantentzea eta modu  
jasangarrian erabiltzea,  
garapen jasangarriari  
begira**

---

## HELMUGA

**14.1 Hemendik 2025era, mota guztietako itsas kutsadura aurreikustea eta nabarmen murriztea, bereziki, lurrean eginiko jardueren bidez sortutakoa (itsas detrituak eta elikagaien bidezko kutsadura barne).**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Getarian, BLUE POINT Itsas Kutsaduraren eta Ekonomia Zirkular Urdinaren Inteligentzia Zentroa inauguratu da. Euskal Kostaldeko itsas kutsaduraren arazoa arintzen laguntzeko sortu da, 50.000 tona itsas zabor baino gehiago biltzen baititu, eta problematika horri tokian tokiko ikuspegitik heltzeko, bokazio globalarekin bada ere, itsasoak garbitzeko ez ezik, Ekonomia Zirkular Urdinaren esparruan enplegu eta enpresa berriak sortzen laguntzeko ere bai.	<b>134.</b> Ingurumen-politika aurreratua eta ingurune naturalaren eta ekosistemen hobekuntza sustatzea, biodibertsitatea eta lurreko zein itsasoko habitat nagusien defentsa sustatuz.
Itsaspen laguntza-programa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko.	<b>29.</b> Portuen kudeaketa eta euskal landa- eta kostalde-espazioa zaintzea.


## HELMUGA

**14.2 Itsasoko eta kostaldeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatzea eta babestea, eragin kaltegarri nagusiak saihesteko. Horretarako, sendotu egin beharko dira eta horiek leheneratzeko neurriak hartu beharko dira, ozeanoen osasuna eta produktibitatea berreskuratze aldera.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Azti Fundazioarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren luzapena. Hitzarmen horrek bi aldeen arteko koordinazioan sakontzen du elementu ozeano-meteorologikoen zaintza, jarraipena, kontrola eta kudeaketarekin lotutako gaietan.	<b>111.</b> Segurtasun integrala eta interkonektatua lortzea.
KostaEgoki proiektua amaitu da, Euskal Kostaldeko klima-aldaketaren aurrean kalteberatasuna eta arriskua aztertzeko.	

GIH 14 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_14/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_14/ods.html</a>	(2015)	(2020)
<b>Lurrazaleko ur-masen kalitatea:</b> Egoera global ona duten lurrazaleko ur-masen proportzioa (kostaldeko urak, trantsizioko urak, urtegiak, lakuak, hezeguneak eta ibaiak)	<b>%48,10</b>	<b>%53,00</b>







# GIH 15

**Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea**

## ODS 15 - Edukien laburpena

---

### Ekimen Legegileak

·9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa, Natura-guneak eta biodibertsitatea natura-ondarearen ikuspegi integral batetik zaintzeko, natura-ondarearen kudeaketaz ardurtzen diren administrazio-mailen arteko koordinazioa hobetzeko, zeharkako beste politika batzuekin integratzeko, hala nola klima-aldaketari buruzkoekin, eta lehen sektorean aukerak bultzatzeko, natura-ondarearen babesa garapen ekonomiko eta sozialarekin uztartzeko.

·Landa-garapenaren Lege Proiektua, euskal landa-ingurunearen garapen iraunkorrerako jarduerak gidatzeko, eta horrenbestez, gainerako lurraldearekin berdintasunezko jarrera izan dezan, herrialdearen garapenean eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koehesioan funtsezko faktore gisa.

·Armañon, Gorbeia, Izki eta Urkiolako Naturagune Babestuetako Natur Baliabideak Antolatzeko bigarren Planak onartzeko dekretu-proiektuak; Euskal Herriko natura kontserbatzeko.

### Plangintza Tresnak

·EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030, kapital naturala babesteko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko, ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak zainduz eta baso, lehorreko eta itsasoko habitat eta espezie nagusien egoera hobetuz, inbasio biologikoen arazoari modu integralean helduz.

·2030erako Euskadiko Ingurumenaren V. Esparru programa lantzea, munduko joera nagusiekin bat etorriz, euskal gizarte oparoa, modernoa, aurreratu eta iraunkorra garatzeko ingurumen-politika hedatzeko.

## JARDUEREN BETETZEA

**GIH 15: Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea**

---




## HELMUGA

**15.1 Lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gune lehorrak; hori guztia, bat etorri nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Erein programa, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak emateko izaera publiko eta pribatuko erakundeei.	29. Portuen kudeaketa eta euskal landa- eta kostalde-espazioa zaintzea.
Gasteizko Mendien Kontserbazio Bereziko Eremua handitzen hasi da, eta 3.000 hektarea baino gehiago babestu dira.	
Nekazaritza Politika Erkidean (NPE) txertatutako zuzeneko laguntzak. 2021eko deialdia 45.000.000€.	27. Tokiko elikadura ekologiko, jasangarri eta osasuntsuagoa sustatzea.

GIH 15 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_15/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_15/ods.html</a>			
<b>Kudeaketa jasangarrirako tresnak indarrean dituzten basoen azalera hektareatan:</b> Baso-kudeaketa iraunkorrari buruzko estatistika. Autonomia-erkidegoetako estatistika-organo zentralen artean metodologia harmonizatua erabiliz kalkulaturako adierazlea	(2015) 78.208	(2019) 95.091	↑
<b>Basoen azalera, azalera osoarekiko:</b> Superficie forestal arbolada en proporción a la superficie total.	(2015) %54,89	(2019) %54,85	↓





# GIH 16

**Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan**

## GIH 16 - Edukien laburpena

---

### Ekimen Legegileak

- Euskadiko Memoria historiko eta demokratikoaren Lege-proiektua: Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikorako politika publikoak arautzea, gerra zibilean eta diktaduran arrazoi politiko, ideologiko edo sinesmen erlijiosoengatik jazarpena edo indarkeria jasan zutenen erreparazio morala eta memoria pertsonala eta familiarra berreskuratzea sustatzeko.
- 169/2021 Dekretua, uztailaren 6koa, espetxe-arloko estatu-legeak beteazterazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa: Espainiako Estatuak ezarritako legediaren esparruan, Euskadiko espetxeetako zuzendaritza, gainbegiratze, antolaketa, kudeaketa ekonomiko eta administratiboko eta ikuskaritzako eginkizunak eskualdatzea.
- Kultu lekuen, Zentroen eta Erlijio Aniztasunaren Lege-proiektua, gizar-tearen bizikidetzeta eta erlijio-aniztasuna babesteko eta pertsonen erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea gauzatzen dela bermatzeko.
- “AUKERAK”, Espetxeetarako Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzekoa, Euskadiko espetxeetan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea errazteko.
- Xedapen orokorrak egiteko lege-proiektua, Eusko Jaurlaritzak bere legeak eta dekretuak egiteko bete behar dituen fase eta baldintza guztiak arautzeko, prozedura-, partaidetza-, eraginen ebaluazio- eta gardentasun-premia berrietara egokituta.

- 
- Kasazio Zibilerako Euskal Errekurtsoari buruzko Lege-proiektua**, kasazio zibileko errekurtsua justizia-auzitegietan jar daitekeen kasuak zabaltzen dituen, eztabaida judizialek euskal zuzenbide zibilari eragiten diotenean.
  - Zehatzeko ahalari buruzko lege-proiektua**, Euskadiko herri-administrazioen zehatzeko gaitasuna arautzeko, prozesuak sinplifikatuz eta herritarren bermeak indartuz zehapena jaso dezaketen prozesuetan.
  - 171/2021 Dekretua**, uztailaren 6koa, errepide bidezko garraioari dagokionez, uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan aurreikusitako ahalmen jakin batzuei atxikitako giza baliabideak, aurrekontukoak eta ondarekoak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko dena.
  - 172/2021 Dekretua**, uztailaren 6koa, ISSNren (International Standard Serial Number) esleipenari dagokionez Estatuko Administrazioak dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko dena.
  - 170/2021 Dekretua**, uztailaren 6koa, maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez portu-gaietan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuko administrazioaren zerbitzuetara atxikitako ondare-bitartekoak gehitu eta EAeri eskualdatzeko dena Ondarroako portuko eraikina, Itsas Mugapearen egoitza ohia.



---

## Plangintza Tresnak

- Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra 2025**, Euskadiko segurtasun publikoaren mehatxu nagusiei erantzun eraginkor eta bateratua emateko ordenatzeko eta planifikatzeko.
- Gazte Justiziaren V. Plana**, prebentzioa, sailen arteko lankidetzeta eta 14 eta 18 urte bitarteko arau-hausleentzako interbentzio judizialen kalitatea sustatzeko.
- Justizia Digitaleko Plana 2021-2026**, auzitegi-tako administrazio-kudeaketa eraldatzeko eta hobetzeko eta herritarrentzako kudeaketak arintzeko.
- (H)ABIAN 2030 Estrategia - Gizarte-eraldaketarako heziketa**, Planetako bidegabekeria eta desberdintasunaz jabetzen den herritartasun kritikoa sustatzeko; eta norbanakoen eta taldeen aldaketak eragingo dituzten praktika zuzen eta solidarioak sustatzeko.
- Gogora Institutuaren 2021-2024 Jarduera Plana**, etorkizunari begira memoria partekatua eraikitzeke oinarriak ezar ditzakeen gogoeta- eta eztabaida-prozesu bati bultzada emateko.
- Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa, ARDATZ 2030**, Administrazio integrala, berdintasunezkoa, elebiduna, berritzailea eraikitzea du helburu, enplegatu publikoen eta herritarren parte-hartze aktiboarekin, horien beharretan oinarritua, emaitzetara bideratu eta ebaluatzen dena, irekia eta gardena, eta zerbitzu irisgarriak, kalitatezkoak, efizienteak, eraginkorrak eta seguruak eskaintzen dituena.
- OGP Euskadiren Bigarren Ekintza Plana (2021-2024)**: Herritarrekin batera sortua, gizarte zibilaren lankidetzarekin eta administrazioaren hiru mailen artean koordinatuta ezarri beharreko konpromisoak biltzen dituena, gobernu irekiaren funtsezko erronkei erantzuteko.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 16: Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

### HELMUGA

**16.1. Nabarmenki murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Uda 2021 Kontingentzia Plana Euskadin igarobidean dauden migratzaileei arreta emateko 500 plaza izango ditu. Plaza kopuru horretatik 338 Irun inguruan eta Bidasoa eskualdean daude.	<b>87.</b> Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea
VioGén eta EBA programen interkonexioa, emakume biktimen datuak partekatzeko eta haien mugikortasun segurua errazteko.	<b>111.</b> Segurtasun integrala eta interkonektatua lortzea.

### HELMUGA




**16.3 Zuzenbide estatua sustatzea maila nazionalen eta nazioartean, eta justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna bermatzea denontzat.**


Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Espetxeetarako AUKERAK, Gizarteratzearen Euskal Agentzia, sortzeko lege-proiektua onartu da. Legebiltzarrak 2021eko irailaren 30ean onartu zuen: 3/2021 Legea, Aukerak Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzekoa.	<b>102.</b> Espetxe-politika kudeatzea eta presoak gizarteratzea.
Adingabeak eta gazteak gizarteratzeko hainbat erakunderekin hitzarmenak formalizatzea. 2022an hainbat zerbitzu ematea arautzen dute, gazteek eta adingabeek neurri judizialak bete ditzaten. Hirugarren Sektore Sozialeko hainbat erakunderekin egindako hitzarmenen bidez, 8,6 milioi baino gehiago egoitza-harrerako zentroy funtzionamendura joango dira; 1,4, ingurune irekiko esku-hartzeetara; 0,87, eguneko zentroetara; eta 0,44, 'Autonomia-egoitza' batera. (11.000.000.- €)	<b>102.</b> Espetxe-politika kudeatzea eta presoak gizarteratzea.

## HELMUGA

### 16.6 Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
“Euskadiko Bonu Jasangarriaren” bosgarren jaulkipena, 1.000 milioi eurokoa, finantza-egoeraren sendotasuna indartzeko eta Covid-19ak sortutako salbuespenezko egoerari aurre egiteko baliabideak bermatzeko. Eskaria eskaintza baino hiru aldiz handiagoa da, eta inbertitzaileen % 63 jasangarriak dira.	<b>150.</b> Baliabide publikoak erantzukizunez kudeatzea.
Eusko Jaurlaritzaren atariak Zerbitzu Publikoen Berrikuntzaren Kongresu Nazionalak gardentasuna eta parte-hartzea sustatzen duten gobernantza-proiektuei edo estrategiei ematen dien saria lortu du.	<b>148.</b> Administrazio irekiagoa eta gardenena bultzatzea, kontuak denbora errealean ematen dituenak.
Topaketak izeneko ekimenari berriro ekitea, herritarrekin elkartzeko gune digitala baita, herritarren parte-hartzea bultzatuz.	
2021eko Elkarlan sarien deialdia, balio publikoa sortzea sustatzen duten proiektu berritzaileentzat.	
Zuzenean Herritarren Arretarako Zerbitzuak BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria lortu du.	<b>147.</b> Aurrera egitea bikoiztasunak saihesten dituen administrazio hurbilagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzeko prozesuan.

GIH 16 Aderazleak <a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_16/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_16/ods.html</a>	Oinarri-datua	Azken datua eta tentsioa	
<b>Kriminalitate-tasa:</b> Polizia-kidegoek mila biztanleko erregistratutako arau-hauste penalak.	(2015) 39	(2020) 35	
<b>Bizilekuan bakarrik ibiltzean seguru (oso edo nahiko seguru) sentitzen diren 16 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa:</b> Norberaren ongizate-inkesta, Eustat.	(2014) %76,38	(2019) %69,47	
<b>Eusko Jaurlaritzarengan konfiantza duten pertsonen proportzioa:</b> Eusko Jaurlaritzarengan konfiantza duten pertsonen proportzioa, EAEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko biztanleria osoarekiko. Informazio-iturria: Euskal Soziometria, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Lehendakaritza.	(2014) %65	(2021) %78	







# GIH 17

## Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

### GIH 17 - Edukien laburbena

---

#### **Ekimen Legegileak**

·Garapenerako Lankidetzaren Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek egiten eta bultzatzen duten garapenerako lankidetzako eta nazioarteko elkartasuneko politika arautzeko.

#### **Plangintza Tresnak**

·Euskadi-Basque Country 2025 Estrategia: Euskadiren kanpo-posizionamendua hobetzeko, sare sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzeko, Europako proiektuan lagundu eta parte hartzeko, eta erronka globalak gainditzeko euskal ekarpena indartzeko.

·Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana, Giza garapen iraunkorra sustatzeko eta pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzeko, Hegoaldeko eta Iparraldeko eragileen ezberdinen estrategiak bultzatuz eta lagunduz.

## JARDUEREN BETETZEA

# GIH 17: Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

## HELMUGA

**17.3 Hainbat iturritako finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea, garapen-bidean dauden herrialdeentzat.**

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
2021erako «Erronka globalen aurrean, gazteak martxan» deialdia abian jartzea. Deialdi horren helburua da Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazteen arteko elkartasuna, garapenerako lankidetzak eta trukea sustatzeko jarduerak edo ekintzak bat proposatzen duten ideiarik onenak saritzea.	<b>104.</b> Euskal herritarren, erakundearen eta gizarte-eragileen eta antolakuntzen artean partekatutako garapenerako lankidetzako politika irekia garatzea.
Osasun-lankidetzaren arloko jarduerak-protokoloa, elkartasun-kanpainen edo eskolatzeko-arrazoiengatik hartutako pertsonen aldi baterako estaldura emateko; Euskadiko eta Hegoaldeko herrialdeetako osasun-langileen prestakuntza; eta euskal osasun-langileen parte-hartzea lankidetzako proiektuetan edo nazioarteko larrialdi humanitarioetan.	<b>107.</b> Kalitatean, eraginean eta berrikuntzan sakontzea garapenerako lankidetzako politika.

## HELMUGA



### 17.14 Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Lehendakariaren adierazpen publikoa COVID-19 txertoen patenteak aldi baterako etetearen alde.	<b>140.</b> Gizarte-trantsizioaren arloko estrategia eta "Bizi Berri Plan" berria.

## HELMUGA

### 17.16 Garapen jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea, eta horren osagarri izango diren hainbat interesdunen arteko aliantzak ezartzea, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza-baliabideak mobilizatzeko eta trukatzeko, herrialde guztietan, bereziki garapen-bideetan daudenetan, Garapen jasangarrirako Helburuak lortzeko babes emate aldera.

Jarduera	Gobernu Konpromisoa
Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa eratu da, eta 2030 Agendaren gobernantza partekatua bultzatuko du erakundeen eta gizarte-eragileen artean.	<b>141.</b> 2030 Agenda.
Malabon, Ekuatore Ginean, sortu da Afrikako lehen Euskal Etxea. Euskal Herriarekin lotutako euskal eta ekuatoginear herritarrek osatutako elkarte Munduko Euskal Etxeen Sarean sartu da.	<b>138.</b> Munduko Euskal Diasporarekiko loturak indartzea.

GIH 17 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tententzia
<a href="https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_17/ods.html">https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_17/ods.html</a>		
<b>Zuzeneko inbertsio garbia garapenerako laguntza ofiziala jasotzen duten herrialdeetan:</b> Garapenerako Laguntza Ofiziala jasotzen duten herrialdeetako enpresen kapitalean parte hartzeko finantza-baliabide garbiak, milioi eurotan adierazita. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko (OECD) Garapena Laguntzeko Batzordeak (CAD) Garapenerako Laguntza Ofiziala jasotzeko herrialde hautagarrien zerrenda ezartzen du. Munduko Bankuak argitaratutako per capita diru-sarrera nazional gordinen oinarrituta, diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeak dira, G8ko kideak, EBko kideak eta EBN sartzeko data irmoa duten herrialdeak izan ezik.	(2015) 31,52	(2020) 60,52 
<b>Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartu duten gazteak</b> (COVID-19 dela-eta ezin izan da 2021eko edizioa egin).	(2015) 89	(2021) 0 



2030 

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

